

BILBOKO UDALAREN EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO V. PLANAK GENERO IKUSPEGIA UDALAREN POLITIKETAN TXERTATZEA SUSTATZEN DU

- Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako V. Udal Plana 2020-2023 agiriak 142 ekintza jasotzen ditu, Udala osatzen duten sailek garatzeko.
- Agiri estrategiko honek ezartzen dituen lehentasunen artean daude emakumeen ahalduntzea, banaka, gizartean nahiz politikan; gizarteko arlo batzuetan eta besteetan emakumei eragiten dieten diskriminazio eta desberdintasunak desagerraraztea; eta emakumeen kontrako bortizkeria matxista eraztea.

(*Bilbo, 2021eko otsailaren 25a*).- Bilboko Udalak gaur goizean eman du ezagutzera, Udalbatzaren osoko bilkuran, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako V. Udal Plana 2020-2023, zeina tresna baliagarritzat jotzen baita, oraindik ere, emakumeen eta gizonen artean Bilboko jendartean diren desberdintasunak gainditzeko. Hala, bada, xedea da **genero-diskriminazioa eta -desberdintasunak eragiten eta berreraigiten dituzten egiturak desagerraraztea**, eta, hala, **emakumeen kontra erabiltzen den indarkeriaren kausak eta ondorioak eraztea**.

V. Udal Plan hau Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Bilboko Udalaren Ordenantzaren printzipio eta xedeen artean kokatzen da, eta baita ere **Bilboko Udalaren 2019-2023 Agintaldi Planaren** barruan ere, han baitaude ezarrita uriaren proiektu handiak eta lehentasuneko ekinbideak, Bilbo pertsonen, auzoen eta ekonomia-jardueraren uri gisa finkatzeko xedea dutenak.

PLANA EGITEKO PROZESUA

Agiri hau estrategikoa da, eta **parte-hartze bidezko prozesu baten emaitza da, zeinean interes-talde nagusiek parte hartu baitute, kanpokoek nahiz barnekoek**, eta berek aurkeztutako hobetzeko proposamenekin osatu da planaren azken edukia. Guztira, **hobetzeko 143 proposamen aurkeztu dituzte, eta horien artean ia % 70 sartu dira dokumentuan**.

Alde batetik, **Sailarteko Batzorde batek parte hartu du, Udalaren sail eta enpresa guztiek parte hartzen zutelarik bertan, eta nork bere jardun-eremuan garatzekoak izango diren ekintzak eta proiektuak lehenetsi dituzte**.

Beste alde batetik, behin Planaren lehen zirriborro bat egin ostean, berriro ere egiaztatu da Udalaren sail eta enprekin, eta Berdintasunerako Bilboko Emakumeen Kontseiluari eta Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako planen jarraipena egiteko Batzorde Misto Politikoari (Bilboko Udaleko alderdi politiko guztien ordezkariak osatzen dute) egin zaio haren gaineko kontsulta.

BERDINTASUNERAKO V. PLANAREN LEHENTASUNAK

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako V. Udal Planak (2020-2023) **142 ekintza** jasotzen ditu, **Bilboko Udala osatzen duten sailek 2023ra arte garatuko dituztenak.**

Ekintza horiek ezartzeko, oinarritzat hartu da, besteak beste, **Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Udal Plana 2014-2017 delakoaren ebaluazioa.** Nabarmendu beharrekoa da plan horretako ekintzen **betetze-maila % 92 izan zela**, eta aurrerapen handia ekarri zuela Udalak genero-ikuspegia udalean sartzeko bidean.

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako V. Udal Planak (2020-2023) ezartzen dituen lehentasunen artean daude **Bilboko emakumeen ahalduntzea, banaka, gizartean nahiz politikan; gizarteko arlo batzuetan eta besteetan emakumeei eragiten dieten diskriminazio eta desberdintasunak desagerraraztea; eta emakumeen kontrako bortizkeria matxista eraztea.** Gainera, bereziki nabarmentzen da **paradigma feminista eta emakume guztien arteko dibertsitatea eta diferentzia.**

SARE SOZIALAK

- **Bilbao Udala:** [FACEBOOK](#) | [TWITTER](#) | [INSTAGRAM](#)
- **Bilbao Berdintasuna:** [FACEBOOK](#) | [TWITTER](#) |

EL V PLAN PARA LA IGUALDAD DE MUJERES Y HOMBRES DEL AYUNTAMIENTO DE BILBAO IMPULSA LA INCORPORACIÓN DE LA PERSPECTIVA DE GÉNERO EN LAS POLÍTICAS MUNICIPALES

- El V Plan para la Igualdad de Mujeres y Hombres 2020-2023 recoge 142 acciones que se van a desarrollar por parte de las diferentes áreas municipales.
- Entre las prioridades de este documento estratégico se encuentra el impulso del empoderamiento individual, social y político de las mujeres; la eliminación de las discriminaciones y desigualdades que afectan a las mujeres en los diferentes ámbitos sociales; y la erradicación de la violencia machista que sufren las mujeres.

(Bilbao, a 25 de febrero de 2021).- El Ayuntamiento de Bilbao ha dado cuenta, en el Pleno municipal celebrado esta mañana, del [V Plan para la Igualdad de Mujeres y Hombres 2020-2023](#), considerada una herramienta útil para la superación de las diferencias que aún persisten entre hombres y mujeres en la sociedad bilbaina. Asimismo, su ejecución logrará **remover aquellas estructuras que producen y reproducen las discriminaciones y desigualdades de género** y así **erradicar las causas y efectos de la violencia que se ejerce contra las mujeres**.

Este V Plan Municipal, aprobado en diciembre de 2020 en Junta de Gobierno, se enmarca dentro de los principios y finalidades de la [Ordenanza del Ayuntamiento de Bilbao](#) para la igualdad de mujeres y hombres, así como del **Plan de Mandato del Ayuntamiento de Bilbao 2019-2023**, donde se recogen los grandes proyectos de ciudad y las actuaciones prioritarias para consolidar a Bilbao como la ciudad de las personas, de los barrios y de la actividad económica.

PROCESO DE LA ELABORACIÓN DEL PLAN

Este documento estratégico es el resultado de un **proceso participativo donde han tomado parte los principales grupos de interés tanto internos como externos**, quienes con sus propuestas de mejora han enriquecido el contenido final del plan. En total, han presentado **143 propuestas de mejoras, incorporándose al documento prácticamente el 70% de las mismas**.

Por un lado, se ha contado **con la Comisión Interáreas, compuesta por todas las Áreas y Empresas municipales quienes han priorizado acciones y proyectos a desarrollar** en sus respectivos ámbitos de intervención.

Por otro, una vez realizado el primer **borrador del Plan, se ha contrastado de nuevo con las Áreas y Empresas municipales**, y se ha extendido su consulta al **Consejo de las mujeres de Bilbao por la Igualdad** y a la **Comisión Política de Seguimiento de los**

Planes de Igualdad, integrada por representantes de la totalidad de los partidos políticos del Consistorio bilbaino.

PRIORIDADES DEL V PLAN DE IGUALDAD

El V Plan Municipal para la Igualdad de Mujeres y Hombres 2020-2023 recoge **142 acciones que se van a desarrollar hasta 2023 por parte de las diferentes áreas que componen el Ayuntamiento de Bilbao.**

Para la fijación de estas acciones, entre otras cuestiones, **se ha tomado como base la evaluación del IV Plan Municipal para la Igualdad de Mujeres y Hombres 2014-2017.** Es importante destacar que el **grado de cumplimiento de las acciones del mismo fue del 92%** y que supuso un **avance en la integración de la perspectiva de género en el ámbito municipal por parte de las áreas del Ayuntamiento.**

Entre las prioridades de este V Plan municipal se encuentra el **impulso del empoderamiento individual, social y político de las mujeres de Bilbao;** la **eliminación de las discriminaciones y desigualdades que afectan a las mujeres en los diferentes ámbitos sociales;** y la **erradicación de la violencia machista que sufren las mujeres.** Además, se hace un especial hincapié en el **paradigma feminista y la diversidad y la diferencia de todas las mujeres.**

REDES SOCIALES

- **Bilbao Udala:** [FACEBOOK](#) | [TWITTER](#) | [INSTAGRAM](#)
- **Bilbao Berdintasuna:** [FACEBOOK](#) | [TWITTER](#) |